

## 1. SARRERA

(IPI) EGUZKILORE ikastetxearen hezkuntza-proiektuak, besteak beste, helburu hauek ditu:

1. Gure ikasleek tolerantzia, errespetua, askatasuna eta elkartasuna bezalako baliok barneratzea, balio horiek landu, garatu eta gaurko munduan duten esanahia eta ondorioak ulertzea bideratutako jardueren bidez. Balio horiek erreferentzia izango dira eguneroko lanean.
2. Ikasleen, irakasleen, gurasoen eta irakasleak ez diren langileen arteko partaidetza, elkarbizitza, eta elkarrekiko errespetuaren sustapena, ikasteko eta elkarbizitzarako benetako komunitate bat osatzeko.

Elkarbizitza Plana aipatutako helburuak lortzeko funtsezko tresna izango da.

Antolakuntza eta Jarduera Araudian, dagokien atalean, elkarbizitza-arauak, neurri zuzentzaileak etab. aipatzen dira, zeinak plan honetan jasotako printzipio eta jarraibideekin bat etorriko diren.

Tutoretzako Ekintza Plana (aurrerantzean TEP) eta bertan jasotzen diren helburuak estuki loturik daude Elkarbizitza Plan honekin.

Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP), metodologia /aniztasunaren arreta /... atalean bat dator plan honetan definitutako elkarbizitza-ereduarekin (adibidea: metodologia aktiboak- elkarrekintza taldeak, metodologia kooperatiboak erabiltzea)

Elkarbizitza-plan honek gure ikastetxeko elkarbizitzaren diseinu bat izan nahi du, eta organo eskudunek adostutako proiektu eta planekin bat datorren garapen- eta kudeaketa-bideak ezarri eta sistematizatzen ditu.